

	ORRIALDEA	ORRIALDEA
izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izendapen proposamena.	11055	
1.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Publikoaren Eskaintza, oposizioak eta lehiaketak		
– 243/2007 EBAZPENA, urriaren 1ekoa, Justizia zuzendari nagusiak emana, apirilaren 27an emandako JUS/1336/2007 Aginduaren bidez deitutako lekualdatze lehiaketako III. eranskina interesdunen eskura non egonen den jakinarazten duena. Deialdi horren xedea Justizia Administrazioiko Kudeaketa Prozesal eta Administratiboaren, Izapide Prozesal eta Administratiboaren eta Laguntza Judizialaren Kidego eta Eskaletako funtzionarioen artean lanpostu hutsak betetzea da.	11055	
1.3. BESTELAKO XEDAPENAK		
1.3.1. Lurraldearen antolamendua eta hirigintza		
– 17/2007 FORU AGINDUA, irailaren 25ekoa, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana, Galarko Udal Plana Ezkizozko 2. poligonoko 96. lurzatian aldatzeko espediente, Promesanco, S.L.k sustatua, behin betikoz onesten duena.	11056	
– 18/2007 FORU AGINDUA, irailaren 25ekoa, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana, Bakaikuko Udal Plana UE-58 B exekuzio unitatean aldatzeko espediente, Otamendi Goicoechea senideek sustatua, behin betikoz onesten duena.	11056	
– 20/2007 FORU AGINDUA, irailaren 25ekoa, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana, Allin ibarreko Udal Plana Aramendiko 2. poligonoko 32. lurzatian aldatzeko espediente, Eva Fritsch Lagares eta Enrique Medino Miguel jaun-andreek sustatua, behin betikoz onesten duena.	11056	
1.3.3. Nahitaezko desjabetzeak		
– 119/2007 FORU AGINDUA, irailaren 26koa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak emana, "Tutera-Tarazona NA-121-C errepidearen eta Murchanten sartzeko NA-6840 errepidearen arteko bidegurutzea erdiko bide bat eginez hobetzeko proiektua" behin betikoz onesten duena.	11056	
1.3.4. Dirulaguntzak eta bekak		
– 222/2007 FORU AGINDUA, irailaren 21ekoa, Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, 2007an eta 2008an laguntza, prestakuntza eta ikerketa modalitateetako gara-		
		penerako lankidetzak teknikorako proiektuak egiteko dirulaguntzetarako dei egiten duena.
		– 223/2007 FORU AGINDUA, irailaren 21ekoa, Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, 2007an eta 2008an garapenerako hezkuntzarako proiektuak egiteko dirulaguntzetarako dei egiten duena.
		– 224/2007 FORU AGINDUA, irailaren 21ekoa, Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, 2007an garapenerako lankidetzarako urte batzuetako programak egiteko dirulaguntzetarako dei egiten duena.
		– 240/2007 EBAZPENA, irailaren 26koa, Garraio zuzendari nagusiak emana, erabiltzaile guztiei zuzendutako errepideko hiriarteko bidaiari-garraio publiko erregular finkoko zerbitzuen kontzesioa izanik, 2006. urtean ustiapen defizitarioa izan duten enpresei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena.
		– 241/2006 EBAZPENA, irailaren 26koa, Garraio zuzendari nagusiak emana, Nafarroako udal eta kontzejuei 2006. urtean zehar egin diren errepideko hiriarteko bidaiari-garraio kolektibo zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena.
		1.3.6. Beste batzuk
		– NAFARROAKO ZERGA OGASUNA Derrigorrezko dirubilketa. Iragarkia, ondasunak esleipen zuzenaren bidez besterentzeko.
		II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA
		2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK
		2.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK
		2.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak
		2.2.2. Plantilla Organikoa, Lan Publikoaren Eskaintza, oposizioak eta lehiaketak
		2.3. BESTELAKO XEDAPENAK
		2.3.1. Baimen eta lizentziak
		2.3.4. Aurrekontuak-Toki Ogasunak
		2.3.5. Beste batzuk
		V. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA
		VI. PROZEDURA JUDIZIALAK
		VIII. IRAGARKIAK
		8.1. BESTELAKO IRAGARKI OFIZIALAK
		8.2. PARTIKULARREN IRAGARKIAK

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.2. Foru Dekretuak

199/2007 FORU DEKRETUA, irailaren 17koa, azaroaren 9ko 10/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena. Aipatu legeak argiteria arautu zuen, gaueko ingurumena babestearren.

ZIOEN AZALPENEA

Gaueko argiteria desegokiaren eta haren ondorioz etor litezkeen argi-kutsadura motei erantzuna emateko, energia eraginkortasun maximo esparru batean, gaueko argiteriak giza jardunean duen garrantzia aiantzi gabe, argiteria arautzeari buruzko azaroaren 9ko 10/2005 Foru Legea onetsi zen, gaueko ingurumena babestearren.

Foru dekretu honek azaroaren 9ko gaueko ingurumena babestearren argiteria arautzeari buruzko 10/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onestea du xede.

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz gaitzea gaueko ingurumena babestearren argiteari arautzeko, aipatu 10/2005 Foru Legearen azken xedapenetan bigarren espresuki dago jasota, erregelamendu ahalmena arautzen duen Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen III. kapituluarekin bat.

Erregelamenduzko garapenen xede diren lege arauaren edukia oso teknikoa da. Hori dela eta, foru dekretu honen bidez onetsitako Erregelamendua egitean ingurumen, industria eta teknologia arloetan eskumena duten Nafarroako Foru Komunitateko departamentuek hartu dute parte, baita 10/2005 Foru Legeak, energia eraginkortasunaren hobekuntzan eta ondorioz argiaren kutsaduraren gutxitzearekin zerikusia duten eskumenak ematen dizkien toki entitateen ordezkariak ere.

Horrenbestez, eta ekimen hau Landa Garapenerako eta Ingurumen Departamentuko eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko kontseilariak sustatu dutenez, Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilari dagokio foru dekretua onets dadila proposatzea, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 12. artikuluko 5. atalean ezarritakoarekin bat.

Horiek horrela, aipatu foru legean ezarritakoaren arabera Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluaren adostasunarekin eta Nafarroako Gobernuak 2007ko irailaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.–Gaueko ingurumena babestearren argiteria arautzeari buruzko azaroaren 9ko 10/2005 Foru Legea garatzeko den erregelamendua onestea.

Gaueko ingurumena babestearren argiteria arautzeari buruzko azaroaren 9ko 10/2005 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten da. Haren testua ondotik ematen da:

Azken xedapena.–Indar hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2007ko irailaren 17an.–Nafarroako Gobernuak lehendakaria, *Miguel Sanz Sesma*.–Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariak, *Javier Caballero Martínez*.

GAUEKO INGURUMENA BABESTEARREN ARGITERIA ARAUTZEARI BURUZKO AZAROAREN 9KO 10/2005 FORU LEGEA GARATZEKO DEN ERREGELAMENDUA.

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.

1. Foru Dekretu honek azaroaren 9ko argiteria gaueko ingurumena babestearren antolatzeari buruzko 10/2005 Foru Legea garatzeko erregelamendua onestea du xede.

2. Erregelamendu hau Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-eremuan aplikatuko da. Kanpoko argiteriarako instalazio berrien proiektu, diseinu-memoria tekniko eta obra guztiei aplikatuko zaie, publikoak nahiz pribatuak izan, baita lehendik dauden instalazioak birmoldatu edo handitzeko proiektuei ere.

2. artikulua. Zonak.

1. Udalek beren udal mugapeetan lurraldearen zonak ezarriko dituzte, argiaren kutsadura arriskuaren ondorioetarako ezartzen diren babes mailekin, bestela jokatuko arrazoirik ez badago betiere.

2. Argiaren kutsadura arriskuaren arabera lurraldea banatzera-koan, zona hauek finkatu dira:

a) E1 zona: babes berezia izanen duten lurralde-eremuen edo naturgune babestuen sarean baitako areak, ezaugarri naturalengatik edo bere balio astronomiko berezia dela eta. Haietan gutxieneko distira besterik ezin da onartu. Hasiara batean, eskualde biogeografiko bakoitzerako Europar Batzordeak onetsitako Batasunaren Intereseko Lekuen zerrendak izanen du izaera hori.

b) E2 zona: distira txikia besterik onartzen ez duten lurralde-eremuetan sartutako areak, oro har bizilekuek eta industrialdeetatik kanpo. Landa-bideek eta hiriarteko bide guztiek izanen dute izaera hau, gurutzaguneak, bide-lotuneak eta biribilguneak izan ezik.

c) E3 zona: distira ertaina onartzen duten lurralde esparruetan sartutako areak, oro har bizilekuak eta industrialdeak. Eredu honen baitan sartzen ahalko dira bide eta errepideen arteko eta errepideen arteko gurutzaguneak, zein kategoriatakoak diren kontuan hartu gabe, hala nola gurutzaguneak, bide-lotuneak eta biribilguneak.

d) E4 zona: oro har gaueko ordutegian jarduera handiko bizilekuak eta merkataritzako erabilera duten hiriguneak. Oso erabiliak diren hiri-zeharbideetako errepide nagusiak eta hiri-arteriak. Salbuespenez, E2 o E3 zonetan egon arren, beren balio arkitektoniko edo gizarte balioa dela eta, nabarmendu behar duten toki berezi eta jakin batzuek ere izan dezakete izaera hau.

3. artikulua. Instalaturako goi hemisferioaren fluxuaren erregulazioa, zona desberdinen arabera.

1. Argi-puntuak igorritako gehieneko goi hemisferioaren fluxuak (GHF) hurrengoak izanen dira:

a) E1 zona: GHFa %1ekoa baino gutxiago izanen da argi-puntu guztietarako eta kanpoko argiteriaren edozein erabilertarako.

b) E2 zona: GHFa %5ekoa baino gutxiago izanen da argi-puntu guztietarako eta kanpoko argiteriaren edozein erabilertarako, apaindurarako kanpoko argiteria izan ezik, erregelamendu honetan garatzen diren zehaztapenak bete beharko baitituzte.

c) E3 zona: GHFa %15ekoa baino gutxiago izanen da argi-puntu guztietarako eta kanpoko argiteriaren edozein erabilertarako, kirol, aisialdi eta ekipamendu, industria eta segurtasun eremuak izan ezik,

haien gehienekoa GHFa %20 artekoa izan baitaiteke. Apaindurarako kanpoko argiteriak erregelamendu honetan garatzen diren zehaztapenak bete beharko ditu.

d) E4 zona: GHFa %20 baino gutxiago izanen da argi-puntu guztietarako eta kanpoko argiteriaren edozein erabilertarako. Apaindurarako kanpoko argitapenak erregelamendu honetan garatzen diren zehaztapenak bete beharko ditu.

e) E1 eta E2 zonetan, zoladura mota batzuen erabilera dela eta, lurzoruak zerura islatutako argia luminarietara igortzen duten argiaren ehuneko handi bat da. Horregatik, ahal izanez gero, zoladura argiak erabiliako dira, ahal den Qo argitasun maila handienarekin eta distira txikiak edo mateak, hau da, S1 ispil-faktore txikiak (argiaren islapen barreiatua). Zoladura mota hauekin luminantzia/iluminantzia erlazioa (L/E) handiena izanen da. Horrela, energia gutxiago kontsumituko da eta zerura igorritako fluxua txikiagoa izanen da.

2. Hau hartzen da ari-puntutzat: luminariaren lanparak eta bertan diren laguntza ekipoeak, euskarri eta elementu hauen euskarriak eta posizionamendua osatutako multzoa, argi-fluxuaren igortzea norabide zehatz bat hartzea ahalbidetzen duen.

4. artikulua. Ibilgailuentzako zirkulazioa duten bideetako argiteria publikorako argitapen eta uniformetasun mailak.

1. Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera ibilgailuentzako trafikoa duten bideen hurrengo sailkapena ezarri da:

a) A motako bideak: autobideak, autobikiak, errepide nazionalak edo herri arteko esparruan eguneko batez besteko trafiko intentsitatea 15.000 gorakoa duten beste edozein motatako bideak.

b) B motako bideak: errepide nazionalak, eskualdekoak eta hiri inguruetako beste tipologietakoak, gurutzaguneak, bide-lotuneak eta edozein bide kategoriatako biribilguneak.

c) C motako bideak: ingurabideak eta hiri-arteriak.

d) D motako bideak: merkataritza eremuak eta zirkulazio mistoa dituzten hiriko bide nagusiak, eta zirkulazioa auzoetara banatzeko hiri-bideak.

e) E motako bideak: nazionalak baina maila apalagoko errepideak, eguneko batez besteko trafiko intentsitatea 15.000tik beherakoa dutenak, eta etxebizitza-guneak hiri-bideekin lotzen dituzten bideak.

2. Bide mota bakoitzari dagozkion luminantzia eta iluminantzia taulak erregelamendu honen I. eranskinean ezarri dira.

3. A, C eta D bide motako instalazioek fluxua murrizteko sistema bat izan beharko dute, modu horretan 23:00etatik aurrera argitapen maila efektiboa I. eranskineko tauletan jasotzen den %40 baino txikiagoa izan dadin.

D motako bideetan eta hiri-arterietan fluxuaren murrizketa bertan behera utz daiteke herriko festetan, Eguberrietan eta jaiegunen bezperetan.

4. Proiektuak gauzaterakoan "luminantzien" kalitate-balioak kalkulatu dira. A motako bide eta ingurabideetan argiteria obren zuzendaritzari balio horiek kalkulatu eta neurtzea eskatuko zaie.

5. artikulua. Oinezkoendako bideetan argiteria publikorako iluminantzia eta uniformetasun mailak.

1. Gaueko ingurumena babestearren argiteria arautzeari buruzko 10/2005 Foru Legearen 4.2.b) artikuluan oinezkoendako ezarritako kanpoko argiteriarako iluminantzia eta uniformetasun mailak hurrengo hauek dira:

–Argitapen ertaina Em (lux): 20 lux (+/- %20).

–Uniformetasun ertaina (Um): \geq %30.

–Muturreko Uniformetasuna (Ue): \geq %20.

2. Instalazio mota hauek fluxua murrizteko sistema bat izan beharko dute, modu horretan 23:00etatik aurrera argiteria maila efektiboa arestiko taulan jasotzen den %40 baino txikiagoa izan dadin.

Fluxuaren murriztea bertan behera utz daiteke herriko festetan, Eguberrietan eta jaiegunen bezperetan.

6. artikulua. Industria eta segurtasun eremuko kanpoko argiteriaren iluminantzia eta uniformetasun mailak.

Gaueko ingurumena babestearren argiteria arautzeari buruzko 10/2005 Foru Legearen 4. artikuluko 2. puntuko e) eta h) letretan industria eta segurtasun eremuetarako ezarritako kanpoko argiteriaren iluminantzia eta uniformetasun mailak hurrengo hauek dira:

–Argitapen ertaina Em (lux): 20 lux (+/- %20).

–Uniformetasun ertaina (Um): \geq %30.

–Muturreko Uniformetasuna (Ue): \geq %20.

7. artikulua. Merkataritza eta publizitate eremuetako kanpoko argiteriaren iluminantzia eta uniformetasun mailak.

1. Argiteria gaueko ingurumena babestearren antolatzeari buruzko 10/2005 Foru Legearen 4.2.f) artikuluan merkataritza eta publizitate

eremuetarako ezarritako kanpoko argiteriaren iluminantzia eta uniformetasun mailak hurrengo hauek dira:

- Argiztapen ertaina Em (lux): 30 lux (+/- %20).
- Uniformetasun ertaina (Um): \geq %30.
- Muturreko Uniformetasuna (Ue): \geq %20.

2. Instalazio mota hauek fluxua murrizteko sistema izan beharko dute, modu horretan 24:00etatik aurrera argiteria maila efektiboa ares-tian adierazitakoaren %40 baino txikiagoa izan dadin. Dena dela, zona hauek jendearendako itxiak daudenean beti gauzatuko da argi-fluxuaren murrizketa.

8. artikulua. Kirol, aisialdi eta ekipamendu eremuetako kanpoko argiteriaren iluminantzia eta uniformetasun mailak.

1. Gaueko ingurumena babestearren argiteria arautzeari buruzko 10/2005 Foru Legearen 4.2.g) eta 4.2.j) artikuluetan kirol, aisialdi eta ekipamendu eremuetarako ezarritako kanpoko argiteriaren iluminantzia eta uniformetasun mailak hurrengo hauek dira:

- Argiztapen ertaina Em (lux): 25 lux (+/- %20).
- Uniformetasun ertaina (Um): \geq %30.
- Muturreko Uniformetasuna (Ue): \geq %20.

2. Ereku hauetako instalazioek argi puntuen fluxua murrizteko edo hein batean itzaltzeko sistema izan beharko dute, modu horretan jendearendako ixten diren unetik argiztapen maila efektiboa 8 lux +/- %20a baino txikiagoa izan dadin.

9. artikulua. Eraikin eta monumentuen fatxaden argiteriaren iluminantzia eta uniformetasun mailak.

1. Interes historiko edo artistiko bereziko eraikin eta monumentuak argiztatzeko argiztapen mailak hurrengo alderdiak kontuan hartuz justifikatu dira:

- a) Ingurunearen eta hondoaren argitasuna.
- b) Eraikuntzako material mota.
- c) Fatxada nagusiak eta bigarren mailakoak.
- d) Eraikin edo monumentuaren behaketa marrak.

2. Proiektoreen kokapena eta hautaketa, lanparen kolorearen tenperatura zehaztuko dira, eta instalazioaren argindar kontsumoa murrizteko behe-presioako sodio lurrunezko, goi-presioako sodio lurrunezko eta halogenuro metalikoko lanparak erabiliko dira.

3. Eguzkia sartu ordutik gehienez ere 24:00ak arteko funtzionamendu ordutegia ezarriko da, jaiegunetan, eguberrietan, jaiegunen bezperetan eta herriko festetan izan ezik, egun horietan 5:00ak arte funtzionatzen ahalko baitute.

4. Hurrengo alderdi hauek ere hartuko dira kontuan: trabak eta kalteak murriztearren, prebentzio eta zuzenketa neurriak jarriko dira gauean argi-dirdairik izan ez dadin, eta argia etxeetara ez sartzeko. Pantaila mugatzaileak paratuz luminariaren argi fluxu nagusiak argiztatu beharreko objektuaren puntu altuena 3 gradutan gainditzea saihestuko da.

5. Baimena lortzeko egin beharreko instalazioa justifikatzen duen memoria aurkeztu beharko da dagokion udalean.

10. artikulua. Berariazkoa argiteriaren iluminantzia eta uniformetasun mailak.

- a) Oinezkoen pasabideen argiteria gehigarria:
 - a1. Argiteria ertaina Em (lux): 50 lux (+/- %10).
 - a2. Uniformetasun ertaina (Um): \geq %50.
- b) Asko erabiltzen diren glorieta eta birbilguneen argiteria:
 - b1. Argiteria ertaina Em (lux): 50 lux (+/- %20).
 - b2. Uniformetasun ertaina (Um): \geq %50.
- c) Pista eta aisialdi eta kirol instalazioen argiteria:

Ezinen dira gainditu kirol jarduera eta kategoria bakoitzerako berariazko araudian ezarritako argiteria maila eta ezaugarriak. Erabilera-ordutegitik kanpo baimendutako gehienezko argiztapen maila kirol eta aisialdi eremuen kanpoko argiteriarako ezarritakoak izanen dira.

11. artikulua. Luminarien betebeharrak teknikoak.

1. Luminaria bat jartzerakoan, hurrengo alderdi hauek zehaztu beharko dira gutxienez:

- a) Argi itsugarria oinezkoen eta bideetako zirkulazioan.
- b) Gutxienezko errendimendua.
- c) Gutxienezko erabilera-faktorea (K) a/h (puntuaren altuera/galtzadaren zabalera) erlazio desberdinetarako.
- d) Gehienezko goi hemisferioaren fluxu instalatua (GHFinst%).
- e) Luminantzia/iluminantzia erlazioa (L/E), ahal den handiena izan dadin.

2. Luminariak instalatzea fabrikatzaileak ezarritako inklinazio eta doikuntzekin egingen da, goi hemisferioaren fluxu instalatua (GHFinst%)

argien kutsadurarako babes eremu bakoitzeko ezarritako gehienezko balioa gainditu ez dezan.

3. Ezaugarri hauek guztiek luminaria mota bakoitzeko autoziurtagiri edo Kreditaziorako Entitate Nazionalak kreditatutako laborategien ziurtagiri baten bidez bermatuak egon beharko dute.

12. artikulua. Lanparen betebeharrak teknikoak.

1. Argi eraginkortasun (lm/w) handieneko lanparak erabiliko dira. Ahal dela goi-presioako sodio lurrunezkoak, argi eraginkortasuna eta errendimendu kromatikoa handiagoak baitituzke.

2. Errendimendu kromatikoa ona behar ez duten instalazioetan, batez ere herrigunetik kanpokoak, ahal izanez gero behe-presioako sodio lurrunezko lanparak erabiliko dira.

3. Bideen argiteria publikoan eta 300 biztanle baina gutxiagoko herrietako hiri-bilbean kolore zuzenduko merkurio lurrunezko lanparak erabiltzen ahalko dira. Lanpara mota horrekin egindako argiteria erregelamendu honetan ezarritako argiteria maila errespetatu beharko du une oro.

4. Bestelako lanpara motak erabiltzen ahalko dira hiriko kirol eremuen, momentu artistikoen, parkeen eta lorategien argiztapenerako, halogenuro metalikokoak adibidez, modu egokian justifikatzen denean, instalazio mota bakoitzerako potentzia egokiak moldatuz eta oinezkoen pasabideen berariazko argiteriarako:

5. Kanpo argiztapena berritzeko prozesuetan merkurio lurrunezko lanparak kendu eta ingurumen-eragin txikiagoa dutenak jartzea izanen da joera. Bidean instalatutako potentzia murriztera ere joko da.

13. artikulua. Ekipo egonkorgailu-erreduktoreen betebeharrak teknikoak.

1. Ekipo egonkorgailu-erreduktoreek hiru eginkizun dituzte: lanparak sareko tentsiora abiaraztea, maila nominaletik murrizturako trantsizioak edo alderantzizkoak, eta tentsioaren egonkortzea.

2. Guztiz independente diren hiru modulu monofasikoz osatuak egonen dira, eta horrela faseetako batean matxura izanez gero gainontzekoei ez die kalterik egingen. Horretarako, edozein anomaliaren aurrean ekipoarekiko zubia egingen duen by-pass-a izan beharko dute. Ekipo horien potentzia instalazioaren potentziaren arabera zehaztuko dira.

3. Lineaburuan jarriko dira, instalazioaren agente zentroarekiko gorputz trinkoan.

4. Guztiz estatikoak izanen dira, egonkortze edota murrizte prozesurako atal mugikorrek edo elektromekanikoak dituen beste edozein ekipu alde batera utzita.

5. Kontsumoaren murriztea aldeztu aurretik zehaztutako gaueko ordu jakin batetik aurrera argiztapen mailaren murrizte uniformean oinarrituko da. Elikatzeko tentsioa murriztuz lortuko da. Kontsumoaren aurrezteak %40tik gorakoa izanen da, argiztapen mailaren %50aren inguruko murrizketarekin.

14. artikulua. Argiteriaren erabilera-ordutegia.

Udalek kanpoko argiteriaren instalazioen funtzionamendua arautzen ahalko dute, betiere erregelamendu honetan xedatutakoari kontra egin gabe. Hau da, hemen adierazten direnak baino argiztapen maila txikiagoak ezartzen ahalko dituzte, edo fluxua murrizteko ordutegia zabalten ahalko dute, edo kanpoko argiteria behar duten jardueren ordutegiak murriztu. Salpuespenez, gaueko ekitaldi, edo festa, kultura, erlijio nahiz kirol ekitaldiak direla eta, fluxuaren murriztea bertan behera uzten ahal dute.

15. artikulua. Proiektuak tramitatzeko prozedura.

1. Behe-tentsioari buruzko Erregelamendu Elektronikoaren babesean tramitatutako argiteria proiektuak, proiektura egokitutako luminariak erregelamendu honetan ezarritako ezaugarriak betetzen dituztela dioten azterlan osagarria izan beharko dute, luminariarako goi hemisferioaren fluxurako ezarritako zonekin bat.

2. Betiere, argiteria motak ezarritako argiztapen eta uniformetasun mailak bete beharko ditu.

16. artikulua. Zehatzeko eskumena duen organoa eta zehapen araubidea.

1. Industria eta Teknologia arloko departamentu eskudunari dagokio gaueko ingurumena babesteko buruzko erregelamenduzko xedapenak ez betetzeagatik arau-hauste arin edo larriengatik zehapenak jartzea eta horren ikuskapena.

2. Ingurumen arloko Departamentu eskudunari dagokio arau-hauste oso larrien ondoriozko zehapen prozedurari hasiera eman eta tramitatzea.

3. Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean aurreikusten ez den guztian, ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legean ezarritako zehapen araubidea erabiliko da.

I. ERANSKINA
Luminantziak

BIDE MOTA	LUMINANTZIA ERTAINA LM (CD/m²)	UNIFORMETASUN OROKORRA (UO)	LUZETARAKO UNIFORMETASUNA	ARGI ITSUGARRIA (TI) (%)
A	≥ 2	≥ 0,4	≥ 0,7	≤ 7
B	≥ 2	≥ 0,4	≥ 0,7	≤ 7
C	≥ 1,8	≥ 0,4	≥ 0,7	≤ 10
D	≥ 1,5	≥ 0,4	≥ 0,5	≤ 10
E	≥ 1,5	≥ 0,4	≥ 0,4	≤ 10

Iluminantziak

BIDE MOTA	ARGITERIA ERTAINA EM (LUX)	UNIFORMETASUN ERTAINA (UM)	MUTURREKO UNIFORMETASUNA (UE)
A	15 (+/- 20%)	≥ 0,65	≥ 0,3
B	25 (+/- 20%)	≥ 0,65	≥ 0,3
C	30 (+/- 20%)	≥ 0,65	≥ 0,3
D	30 (+/- 20%)	≥ 0,50	≥ 0,25
E	10 (+/- 20%)	≥ 0,40	≥ 0,25

F0714683

216/2007 FORU DEKRETUA, irailaren 25ekoa, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua Nafarroako Kirolaren Institutua bihurtu eta horren estatutuak onesten dituena.

ZIOEN AZALPENA

Kirola gure kulturaren funtsezko atal bat da, bizikidetzarako eta gizararen eta gizabanakoen ongizaterako giltzarria, herritarren osasunaren eta hezkuntzaren oinarritzko osagaia. Hori dela eta, administrazio publikoek kirolerako politikak bere gain hartu behar dituzte, herritarrei eman behar dieten beste zerbitzu bat baita. Horretarako, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua sortu zen, 1991tik aurrera arlo hori kudeatu izan duena.

Kirolaren arloan erronka berriak sortu dira, eskola-umeen kirolean, kirol federatua eta goi mailako lehiak bereziki. Horrez gain, kirol medikuntza ikerlan eta azterlanak egiten ari dira, kirol instalazioen arloan eta bateratzeko neurri berrietan ere bai. Horietan, segurtasunak eta hori eraikitze arautegiak garrantzi handia dute. Azkenik, Nafarroako Kirolaren Kontseiluan abian jarri da, berriaz kirolaz arduratzen den erakunde bat hain zuzen ere. Horretarako, bidezko da Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua Nafarroako Kirolaren Institutu bihurtzea, berriaz kirolaz arduratu den erakunde autonomoa izan dena.

Horiek horrela, Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2007ko irailaren 17ko bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.–Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua Nafarroako Kirolaren Institutua bihurtzea, horrek kirolaren arloan dituen eskumenak beretuko dituena, eta erakunde autonomo horretako estatutuak onestea. Haien testua foru agindu honen eranskinean ageri da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.–Izendapenak berrestea.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzaile izendatzen da eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko Kirol zuzendariordea Nafarroako Kirolaren Institutuko Kirol zuzendariorde, izendapen horiek egin ziren baldintza beretan.

Halaber, Idazkaritza Nagusiaren eta Azpiegituren Zerbitzuko zuzendaria Nafarroako Kirolaren Institutuko Idazkaritza Nagusiaren eta Kide Anitzeko Organoen Zerbitzuko zuzendari izendatzen da, izendapen hori egin zen baldintza beretan.

Bigarrena.–Genero berdintasuna.

Zenbait pertsona, kargu edo lanposturi buruz ari denean foru dekretu honek gizonen genero gramatikaleko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan (gaztelaniazko "consejero", "director", "presidente", "secretario" eta abar) ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko delatza horrela, eta postu horiek orokorrean hartzen dituzela hizpide, haiek bai emakumezkoek bai gizonzkoek betetzen dituztela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan, ondorio juridikoen ikuspegitik.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu hau garatzeko neurriak hartu arte, Kirol Zuzendariordeztari atxikiriko ataletik beherako unitate organikoek, Kudeaketa Ekonomiko Administrazioaren Bulegoak, Langileriaren Kudeaketako eta Barne Araubideko Bulegoak, Azpiegiturak Kudeatu eta Ikuskatzeko Bulegoak eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendaritzako

Logistika eta Sostengu unitate teknikoek bere horretan diraute eta haien izenek eta haien eginkizunek ere bai. Behin-behineko egitura berriko organoer atxikiriko zaizkie, lehen zituzten eginkizunekin bat.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe gelditzen dira foru dekretu honi aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, bereziki, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko Estatutuak onetsi zituen azoaren 6ko 77/2006 Foru Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.–Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari departamentuen oinarritzko egitura organikoa ezarri zuen abuztuaren 20ko 57/2007 Foru Dekretuaren 8.2 artikulua aldatu eta honela geratuko da:

"2. Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentuari atxikiriko zaizkio Nafarroako Kirolaren Institutua, Nafarroako Gazteriaren Institutua eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoak."

Bigarrena.–Ahalmena ematen zaio Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako kontseilariari foru dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzen.

Hirugarrena.–Foru dekretu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an.–Nafarroako Gobernuak lehendakaria, *Miguel Sanz Sesma*.–Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria, *María Isabel García Malo*.

ERANSKINA

Nafarroako Kirolaren Institutua erakunde autonomoaren estatutuak

I. TITULUA

Izaera eta eskumenak

1. artikulua. Izaera.

Nafarroako Kirolaren Institutua, administrazio izaerako erakunde autonomo bat da, berezko nortasuna duena, bai eta jarduteko ahalmen osoa ere, xedeak bete ahal izateko.

2. artikulua. Atxikipena eta babesa.

Nafarroako Kirolaren Institutua, bere helburuak betetzeko, Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako Departamentuak plangintza eta politika orokorrean ematen dituen aginpideen mende dago. Bestalde, aipatu departamentuari atxikirik dago, eta departamentu horren esku gelditzen dira Institutua kontrolatu eta babesteko ahalmenak, Estatutuetan, foru legerian eta administrazioari buruzko legerian esleitzen zaizkionak, hain zuzen ere.

3. artikulua. Eskumenak.

1. Nafarroako Kirolaren Institutuari eskumen hauek dagozkie:

a) Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legeak Foru Komunitateko Kirol Administrazioari eta Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroari esleitzen dizkienak.

b) Berriazko legeriak ondare, kontratu, aurrekontu, kontabilitate eta finantzen eta langileriaren kontrolaren arloan erakunde autonomoari esleitzen dizkienak.

2. Eskumenen garapenerako arloan, Nafarroako Kirolaren Institutuak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Kirolari buruzko Foru Legeak Foru Komunitateko Kirol Administrazioari eta Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroari esleitzen dizkienak.

b) Nafarroako Kirol Institutuari atxikiriko zentro eta instalazioak kudeatzea eta horietan egiten diren mantentze eta berritze lanak, inbertsioak eta ekipamenduak.

c) Laguntza eta dirulaguntzetarako programak zuzendu eta kudeatzea eta, estatutu hauetan xedaturikoarekin bat, Nafarroako Kirol Institutuak bere dituen arloetan aholkatu eta informatzea.

d) Nafarroako Kirol Institutuaren helburuak lortzen laguntzen duten jardura guztiak egitea.

e) Esleitzen zaion beste edozein eginkizun, indarra duen legeriarekin bat.

II. TITULUA

Egitura organikoa

I. KAPITULUA

Zuzendaritza organoak

4. artikulua. Zuzendaritza organoak.

Honako hauek dira Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendaritza organoak:

–Gobernu Kontseilua.

–Zuzendaritza-kudeatzailetza.